



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

### **PRENTSA OHARRA / NOTA DE PRENSA**

Udal zerbitzu teknikoek ekarpenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko dute

#### **Herritarrek 262 ekarpen aurkeztu dituzte 2019rako parte hartezko aurrekontuen prozesuan**

Los servicios técnicos municipales estudiarán su viabilidad técnica y económica  
**La ciudadanía presenta 262 aportaciones en el proceso de los presupuestos participativos 2019**

Getxoko herritarrek 151 galde-sorta eman dituzte 2019ko parte hartezko aurrekontuen lehenengo fasean. Parte hartu duten pertsonak, guztira, 262 ekarpen aurkeztu dituzte, udal arlo eta erakunde autonomo ia guztiak barruan hartzen dituztenak.

Azpimarratzekoa da galde-sorten %60 emakumezkoek aurkeztu dituztela eta %40 gizonezkoek. Parte hartzeko bideei dagokienez, galde-sortetatik 74 Algortako, Bidezabaleko eta Areetako metro geltokietako sarreretan jarritako postontzietan utzi dira. Beste 47 bide telematikoetatik (webgunea eta posta elektronikoa) aurkeztu dira, eta 30 galdesorta utzi dira kiroldegietan eta KABetan ipinitako ontzietan.

Aurkeztutako proposamenei dagokienez, honako arlo hauen eskumenekoak dira: Hirigintza (88), Ingurumena (45), Gizarte Zerbitzuak eta Esku-hartze Komunitarioa (40);

151 cuestionarios han sido entregados por la ciudadanía getxotarra en el marco de la primera fase de los presupuestos participativos 2019. En su conjunto, las personas que han participado presentaron un total de 262 aportaciones que abarcan la casi totalidad de las áreas y organismo autónomos municipales.

El 60% de los cuestionarios han sido presentados por mujeres frente al 40% de los hombres. En cuanto a las vías o canales de participación, 74 de los cuestionarios fueron depositados en los buzones colocados en los accesos a las estaciones del metro de Algorta, Bidezabal y Areta; 47 se realizaron a través de medios telemáticos (web y correo electrónico), y 30 se entregaron en las urnas disponibles en las OACs, y en los polideportivos.

Las propuestas presentadas son competencia de las áreas de Urbanismo (88), Medio Ambiente (45), Servicios Sociales e Intervención Comunitaria (40), Presidencia y Seguridad



# Getxo

*bizi ezazu*

Lehendakaritza eta Herritarren Segurtasuna (24), Kultur Etxea (16), Euskara eta Gazteria (14), Ogasuna eta Ekonomia Sustapena (11), Getxo Kirolak (9), Komunikazioa eta Herritarrentzako Arreta (3), Musika Eskola (2), hainbat sail (2) eta zehaztu gabeko edo udal eskumen gabekoak (8).

## **Bigarren fasea**

Ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean gauzatu da udal aurrekontuei buruzko parte-hartze prozesuaren lehenengo zatia. Egindako berrikuspenaren eta sailkapenaren ondoren, udal zerbitzu teknikoek proposamen baliozkoen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertuko dute. Hautatzen diren proiektuen zerrenda egingo da gero, parte-hartzezko aurrekontuen bigarren fasean sar daitezzen, Getxoko bizilagunek haiek lehenesteari begira. Azkenik, hautatutako proiektuak 2019rako udal aurrekontuaren proiektuari batuko zaizkio.

**Prentsa bulegoa:** 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzeko. Eskertzen dizuegu halako arreta izatea beti. Adeitasunez.  
Ue

Ciudadana (24), Aula de Cultura (16), Euskera y Juventud (14), Hacienda y Promoción económica (11), Getxo Kirolak (9), Comunicación y Atención Ciudadana (3), Musika Eskola (2), varias áreas (2) y propuestas indefinidas o sin competencia municipal (8).

## **Segunda fase**

Del 15 de junio al 15 de julio se desarrolló la primera parte del proceso de participación sobre los presupuestos municipales. Tras la revisión y clasificación realizada, los servicios técnicos municipales analizarán la viabilidad técnica y económica de las propuestas válidas. Con posterioridad, se elaborará el listado de los proyectos que sean seleccionados para que se incluyan en la segunda fase de los presupuestos participativos de cara a que las vecinas y los vecinos de Getxo los prioricen. Por último, los proyectos seleccionados se incorporarán al proyecto de presupuesto municipal para 2019.

**Oficina de prensa:** 94 466 03 20.

Rogamos la difusión de esta nota. Agradecemos la atención que siempre nos prestáis. Atentamente.